

debagoieneko emakumeak gerra zibilean eta frankismoan

BERGARA 2014. AROZTEGI ARETOA

Argazki erakusketa • Exposición fotográfica

Martxoaren 7tik 23ra • Del 7 al 23 de marzo

ERAKUSKETA **EXPOSICIÓN**
Debagoieneko emakumeak
gerra zibilean eta frankismoan

ANTOLATZAILEA **ORGANIZADOR**
Begarako Udala Artxiboa Archivo Municipal de Bergara

ARGAZKI ETA OBJETUAK **FOTOGRAFÍAS Y OBJETOS**
Ekin Emakume Emakume Elkartea, Loli Larrañaga eta Begarako Udala Artxiboa
Ekin Emakume Elkartea, Loli Larrañaga y Archivo Municipal de Bergara

INPRIMAKETA-EDIZIOA **IMPRESIÓN-EDICIÓN**
K3 Inprimategia

ARGITARAPENA **EDICIÓN**
Begarako Udala Ayuntamiento de Bergara

LEGE GORDAILUA **DEPÓSITO LEGAL**
SS-419-2014

HEZKUNTZA

Euskal hizkuntza eta kulturaren kontrako zapalkuntza etengabea izan zen frankismo osoan. Gerra ostean agintari frankistek ongi zekiten "Espainia berria" eraikitzeko premiazkoa zela eskola. Horregatik, biziki saiatu ziren tresna ideologiko ahalmentsu hura eskuratzen.

Frankismoak irakaskuntza Eliza Katolikoaren menpe utzi zuen, eta ordena eta diziplinari garrantzi handia emango dio. 6 urtetatik 10 urtetara izango da eskola derrigortasuna, diktaturako azken urteetan 14 urte arte zabalduz. Eskola nazionala dohainekoa izango da eta familia oneko haurrek, Elizaren eskoletan edota eskola pribatuetan ikasiko dute.

Heziketan sexuen arteko berezitasuna egingo da, hau da, mutilen lan mundara begira formatuko zaie eta neskei aldiz, etxerako edo etxe inguruko langintzetarako.



Baldomera Ugalde maistra umeekin, Zapaterikua tabernaren aurrean. 1915 urte inguruan.

Jatorria: Bergarako Udal Artxiboko bilduma (Juan Cruz Azcarate).

Egilea: ezezaguna.



Labegaraietako eskolako neskak eta Julita Ramos maistra. 1927 urte inguruan.

Jatorria: Bergarako Udal Artxiboko bilduma (J. A. Etxeberria).

Egilea: ezezaguna.

KANPOKO LANA

Emakumeek berez etxetik kanpo ere egiten zuten lan. Besteak beste, fabriketako langileak, jostunak, saltzaileak, tabernariak, dendariak, neskameak, emaginak, telefonistak, baserriko produktuen ekoizleak eta saltzaileak eta irakasleak izaten ziren. Dena dela, emakume gehienak etxeko langileak (etxekoandreak) izaten ziren, langile estatusik gabe jakina: *"labores"*, *"labores de casa"* edo *"del sexo"* moduan agertzen ziren erroldetan.

Hori bai, ezkontzen zirenean lana utzi behar izaten zuten. Lana egitekotan, beharrezkoa zen senarraren baimena izaten, eta, gainera, senarrak emaztearen soldata kobratzeko aukera zuen.



Lasagabasterreneko langileak.

Jatorria: Bergarako Udal Artxiboa, Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Algodonerako langileak. 1940ko hamarkadan.

Jatorria: Bergarako Udal Artxiboa, Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.

ETXEKO LANAK

Frankismoak ekarritako errepresio eta miseria egoeran, eta gaur egungo aurrerapenik gabe, etxeke lanak oso astunak izaten ziren. Izan ere, familiak handiak izaten ziren eta, etxeke lanez gain, bestelako zereginak izaten zituen emakumeak: etxekeontzako arropak jostea, baserriko lanak egitea, etxeke guztiak zaintzea...

Lantegian lan egiten zuen emakumeak, soldata bat jasotzen zuenak alegia, lan bikoitza egiten zuen, eta ez edonolakoa: aurrena lantokian eta gero etxean.

Halere, soldatapeko lana, gizonak egiten zutena, jotzen zen benetako lantzat, eta etxeke lanei ez zitzairen inolako baliorik ematen.



Emakumea eta bi gizon lanean. 1964.

Jatorria: Bergarako Udal Artxiboko bilduma.

Egilea: ezezaguna.



Emakume bat umearekin. 1958.

Jatorria: Bergarako Udal Artxiboa, Jesus Urkiola fondoa.

Egilea: Jesus Urkiola.

FAMILIA

Frankismoan, familia-egitura gutxienez hiru belaunaldik osatzen zuten: aitona-amonak, gurasoak eta seme-alabak teilape berean bizi izaten ziren.

Baserrietan, gehienetan seme nagusia geratzen zen maiorazko, baina emakumeak ere jaso zezakeen etxea herentzian. Beste anai-arrebak etxetik joan egiten ziren normalean, bizimodua egitera. Gizonezkoak abade, fraide, morroi... joaten ziren, eta Ameriketarako bidea hartzen zuenik ere bazen. Nesken artean, oster, normala zen beste etxe batzuetara umezain edo neskame joatea, edo moja egitea.

Emakumeak legeen aurrean ere ez zuen autonomiarik: ezkondu aurretik aitaren menpe zegoen eta ezkondu ostean, berriz, senarraren menpe.



Manso familia. 1940ko hamarkadan.

Jatorria: Bergarako Udal Artxiboa, Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Familia erretratua gurdiaren aurrean.

Jatorria: Bergarako Udal Artxiboa, Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.

AISIALDIA

Gerraostean frankismoak eta elizak proposatzen zuten emakume-ereduan aisialdiak ez zuen leku handirik. Horregatik, emakumeei aisialdirako denbora gutxi gelditzen zitzaien.

Gizonezkoen aisia-ekintza batzuk "debekatuta" zeuden emakumezkoentzat. Kirola egitea eta tabernetan ibiltzea, adibidez, gizonezkoen denbora libreko ekintzak ziren. Emakumeek, ahal zutenean, paseatzen, kartetan eta irakurtzen ematen zuten denbora libre.

Dena den, emakumearentzat antolatzen ziren ekintza gehienak erlijioarekin zuten lotura. Elizak Mariaren Alaben kongregazioa eta beste batzuk sortu zituen nesKentzat eta, benetako helburua kristau onak egitea bazen ere, aktibitate batzuk antolatzen zituzten han zebiltzanak gustura egon zitezen, eta emakume askorentzat bilgune bilakatu ziren.



Jauregi familia Debako hondartzan. 1930eko hamarkadan.

Jatorria: Bergarako Udal Artxiboa, Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Emakumeak dantzari San Martzialen. 1947 urtean.

Jatorria: Bergarako Udal Artxiboa, Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.

ERLIJIOA

Elizan emakumeak gehiago izan dira beti, baina gizonezkoek ezarritako bizilegeak bete dituzte orokorrean. Elizak ez ditu inoiz ere gizonaren parekotzat hartu emakumeak. Aita Santua, apezpikuak, kardinalak, apaizak... (agintzen duten guztiak) gizonak dira.

Bibliaren pasarte honetan garbi ikusten da elizaren pentsamoldea: *"Emazteak izan daitezela beren senarren menpeko, Jaunaren menpeko bezala, senarra emaztearen buru baita, Kristo Elizaren buru den bezala..."*.



Arantzazura "Mariaren Alabak" kongregazioaren peregrinazioa. 1945-1950 urte artean.

Jatorria: Bergarako Udal Artxiboa, Jesus Urkiola fondoa.

Egilea: ezezaguna.



Gogo jardunaldien bukaeran taldearen erretratua Osintxun. 1946ko urtarrilean.

Jatorria: Bergarako Udal Artxiboa, Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.

POLITIKA

Politikaren arloan, II. Errepublika (1931-1939), Gerra Zibila (1936-1939), frankismoa (1939-1975) eta demokraziaren aurreko urteak gogoratu nahi ditugu labur-labur.

II. Errepublikan, monarkiaren eta elizaren menpekotasunari ihes egiten ahalegindu zen euskal jendea, eta mugimendu abertzaleek (EAJ, Euzko Gaztedi, Euzko Mendigoizale Batza, ANV...) indar handia hartu zuten. Gainera, Eusko Jaurlaritza, Jose Antonio Agirre lehendakari zela (1936an), Euskaltzaindia (1919an) eta abar sortu ziren.

Era berean, emakumeek ere beren taldeak sortu zituzten, Emakume Abertzale Batza esate baterako. Beraz, jarrera pasiboa izateari utzi eta errebindikazioetan parte hartzen hasi ziren: boto-eskubidea, seme-alaben gaineko guraso boterea, lanerako eskubidea... lortu zituzten.

Baina Franko altzatu eta diktadura ezarri zuenean, lorpen horiek guztiak isilarazi, debekatu eta zapaldu egin zituen. Emakumeak mende erdi egin zuen atzera. Dena den, klandestinitatean bada ere, euskarari eta euskaltzaletasunari bizirik eusten ahalegindu zen euskal jendea: lehen ikastolak 1944an eta gau-eskolak 1965ean sortu ziren.



Algodonerako langileak bazkaltzen hasi aurretik. Francoren argazkia dago aurrekaldean. 1940ko hamarkadan.

Jatorria: Bergarako Udal Artxiboa, Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



José Moscardó Ituarte generala herriko seme kuttun izendatu zuten eguna. Generala San Martin plazara heldu zen momentua. 1936ko abenduaren bederatzian.

Jatorria: Bergarako Udal Artxiboa, Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.

ETXEKO EKONOMIA

Emakumeak etxeko eguneroko gastuak egiten zituen. Jan-eskasia ohikoa izan zen gerra garaian eta baita frankismoaren hasieran ere. Errazionamendua 1939tik 1952ra arte egon zen indarrean.



Jaioberriendako errazionamendu txartel eskaera. 1948 urtean.

Jatorria: Bergarako Udal Artxiboa. Azpifondo administratiboa.



Errazionamendurako txartelak.


Jatorria: Bergarako Udal Artxiboa. Azpifondo administratiboa.

GIZARTEA

Emakumearen papera familian eta gizartean elizak eta estatuak bultzatutakoa zen: ona, umila, senarraren menpekoa, kristaua eta ama.



Bergarako Udal Artxiboa. Zerrajerako liburutegitik ekarritako liburuxkak.



debagoieneko emakumeak gerra zibilean eta frankismoan

Ordutegia:

asteartetik ostiralera	18:00 - 20:30
larunbatetan	12:00 - 14:00
igande eta jaiegunetan	18:00 - 20:30
	12:00 - 14:00



ARozTEGI
ARETOA



Bergarako
Udala